


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Otsailean, Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruak neurrizko beherakada izan du eta **6.965 langabe** zenbatu dira (**3.130 gizon eta 3.835 emakume**):

- Langabezia **% 1,4 jaitsi da urtarilaren aldean.**
- Langabezia **% 1,8 jaitsi da aurreko urteko otsailaren aldean.**

Urtarrilean langabeziak nabarmen gora egin ondoren, otsailean langabeen kopuruak behera egin du. Gizon langabeen kopurua, zein emakume langabeen kopurua murriztu egin dira hilabetearen zehar (-% 0,5 eta -% 2,4, hurrenez hurren).

Aurreko urteko otsailarekin alderatuta, gizon langabeen kopurua pixka bat igo den arren (+%0,3), **emakume langabeen kopuruan izandako jaitsierak** (-% 3,4) **eusten dio urtetik urterako langabeziaren jaitsierari** (-% 1,8).

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,8	8,2	10,1
Gizonen langabezia indizea	7,3	6,9	8,5
Emakumeen langabezia indizea	8,3	9,4	11,6
Genero arrakala	1,0	2,5	3,1

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea 7,8koa da: 7,3 gizonetan, 8,3 emakumeetan eta 1,0 puntu portzentualeko genero-arrakala.

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	8,2	-1,9
Donostia	7,8	-2,3
Bizkaia	11,0	0,9
Bilbo	12,7	2,6
Araba	11,0	1,0
Gasteiz	11,4	1,3

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, **Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburuak.**

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.965	%100	-%1,4
Gizonezkoak	3.130	%45	-%0,5
Emakumezkoak	3.835	%55	-%3,4
Gipuzkoa	29165		-%1,3
EAE	110.545		-%0,6

Langabezia tasa EUSTAT-en arabera (2023ko 4. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,8 otsailean), EUSTATek hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziatzat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla 2023ko azken hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena izan duten lurralde historikoak eta hiriburuak.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2023ko azken hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,7	5,2	5,4
Donostia	6,3	5,4	5,9
Bizkaia	7,6	7,9	7,7
Bilbo	9,8	8,6	9,2
Araba	8,2	6,9	7,6
Gasteiz	10,1	7,3	8,8
EAE	7,1	6,9	7,0

Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan Lanbideren langabezia indizeak. Neurketa Lanbideko erregistroen arabera egiten da.

Eustatek, ordea, langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa.

JARDUERA-TASA (EUSTAT):

2023ko azken hiruhilekoko datuak.



	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	59,7	52,4	55,9
Donostia	60,1	50,6	55,1
Bizkaia	60,2	51,3	55,6
Bilbo	62,9	51,2	56,8
Araba	64,4	50,8	57,4
Gasteiz	64,6	50,0	57,0
EAE	60,7	51,6	56,0

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT):

2023ko azken hiruhilekoko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	56,3	49,6	52,9
Donostia	56,3	47,9	51,8
Bizkaia	47,3	55,6	51,3
Bilbo	56,8	46,8	51,5
Araba	59,1	47,3	53,0
Gasteiz	58,1	46,3	51,9
EAE	56,4	48,1	52,1

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, otsailean:

- 55 urtetik gorako 2.423 langabe erregistratu dira Lanbiden (-18, urtarilaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.642 langabe erregistratu dira Lanbiden (-39, urtarilarekin alderatuta).
- 35-44 urte bitarteko 1.267 langabe erregistratu dira Lanbiden (-43, urtarilarekin alderatuta).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.123 langabetu erregistratu dira Lanbiden (-4, urtarilaren aldean).
- 25 urtetik beherako 510 langabe erregistratu dira Lanbiden (+9 urtarila baino lehen).

Langabeen kopuruak pixka bat gora egin du 25 urtetik beherakoen artean. Gainerako adin-tarteetan langabeen kopuruak behera egin du.

Egia da 55 urtetik gorakoak direla oraindik ere langabezian pisu handiena duten kolektiboak, baina horiek ere garrantzi handiagoa dute biztanleria-mailan.

Urtarrilarekin alderatuta, bai gizon langabeen kopuruak, baita emakume langabetuenenak ere, behera egin dute.

Aldiz, aurreko urteko otsailaren aldean, **emakumeen kontratazioak langabeziaren urte arteko jaitsierari eusten dio** (emakume langabeen kopurua % -3,4 jaitsi da eta gizonena % +0,3 igo).

Otsailean, bai EAEn, bai Gipuzkoan, langabeen kopurua murriztu egin da, baina Donostian baino proportzio txikiagoan (Gipuzkoan – % 1,3 eta EAEn – % 0,6).


Aurreko urteko otsailaren aldean, Donostiako langabeen jaitsiera (- % 1,8) pixka bat handiagoa da EAEkoa eta Gipuzkoakoa baino (- % 1,6 bi kasuetan).

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	%56,1	%43,9	-12,2
25 eta 34 urte bitartekoak	%49,2	%50,8	1,7
35 eta 44 urte bitartekoak	%40,5	%59,5	19,0
45 eta 54 urte bitartekoak	%45,7	%54,3	8,5
55 urtetik gorakoak	%42,4	%57,6	15,1

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

Langabezia gehien feminizatuta dagoen kolektiboa 35-44 urteko emakumeena da, generoen arteko aldea 19 puntukoa baita (aurreko hilabeteetako antzeko mailak). Adin-tarte horretan, 10 langabetik 6 emakumeak dira.

Langabeek lortutako gehieneko hezkuntza maila



Langabeen % 45,5ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 18k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).


Bestalde, goi-mailako ikasketak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) dituzten emakume langabeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, eta esan dezakegu **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonen baino kualifikazio handiagoa dutela**. Aurrerago aztertuko dugun bezala, horrek pentsarazten digu genero-desberdintasunak daudela, emakumeen kolektiboarentzat kaltegarriak, lan-merkatutako sarbidean eta kalitatezko enpleguetan.

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%58,4	%54,7	%54,7
35 urtetik beherakoak	%23,4	%25,1	%24,8
Iraupen luzeko langabezia	%44,0	%44,9	%48,8
Atzerritarrak	%15,8	%20,3	%18,7
EB-ko atzerritarrak / Atzerritarrak	%17,5	%16,8	%15,6
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%18,0	%11,3	%11,2
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%45,5	%54,2	%56,0

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:




- *Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabetu gehiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak gazteen langabezia txikiagoa du.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzerritar jatorriko langabe gutxiago ditu.*
- *Donostian, EBtik datozen atzerritar langabeen proportzioa, atzerritar langabeen guztizkoari dagokionez (%17,5), handiagoa da Gipuzkoan (% 16,8) eta EAEn (% 15,6) erregistratutakoa baino.*

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzaileek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Egia da otsailean emakumeen kontratazioak gizonenak baino gehiago izan direla, eta langabeziaren jaitsierari eusten diola; hala ere, **genero-desberdintasunak antzeman ditzakegu sortutako enpleguaren kalitateari dagokionez, emakumeen kolektiboaren alderaketan.**

Otsailean, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia lanaldi partzialeko kontratuak dira (emakumeek sinatutako kontratuen % 49,8 eta gizonen sinatutako kontratuen % 32,5). Gainera, **Donostian otsailean zehar sinatutako aldi baterako kontratuen % 57,6k eta lanaldi partzialeko kontratuen % 67k emakumeek sinatzen dituzte.**

Fenomeno hori emakume atzeritarrek kontratazioan duten garrantziak baldintzatu dezake. Otsailean, kontratatutako pertsona guztien % 11,4 emakume atzeritarrek ziren.

Horrek guztiak eskatzen digu pentsatzeko oraindik ere oztopoak daudela emakumeentzat lan-merkatutarako eta kalitatezko enpleguetarako sarbidea zailtzen dutenak.

Otsailean 7.666 kontratu sinatu dira Donostian, hau da, urtarrean baino %11,14 gutxiago (854 kontratu gutxiago).

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	2.904	%42,6	3.908	%57,4	6.812
Aldi baterakoak	2.108	%42,4	2.860	%57,6	4.968
Mugagabeak	796	%43,2	1.048	%56,8	1.844
Lanaldi partziala	944	%32,7	1.947	%67,3	2.891
Lanaldi osoa	1.960	%50,0	1.961	%50,0	3.921

Kontratu horiekin 5.377 pertsona kontratatu dira, hau da, %9,2ko jaitsiera izan da urtarrearen aldean (494 pertsona gutxiago kontratatu dira).

Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,4 kontratu sinatu ditu.


Nahiz eta Lanbiden erregistratutako langabeen kopurua % 1,4 jaitsi den otsailean, aurreko hilean baino kontratu gutxiago sinatu dira. Horrek pentsarazten digu kontratu horiekin sortutako enplegua kalitate handiagokoa izan dela.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.098	%43,0	2.785	%57,0	4.883
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4		1,4		1,4
24 urtetik beherakoak	512	%45,3	619	%54,7	1.131
25 eta 34 urte bitartekoak	603	%44,3	758	%55,7	1.361
35 eta 44 urte bitartekoak	431	%43,8	553	%56,2	984
45 eta 54 urte bitartekoak	382	%40,1	570	%59,9	952
54 urtetik gorakoak	170	%37,4	285	%62,6	455
Atzeritarrak	439	%43,9	561	%56,1	1.000

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan gizonak baino emakume gehiago kontratatu dira. Batez ere 45 urtetik gorakoen adin-tartean.
- Kontratazio mugagabearen garrantzia gutxi gorabehera 5 ehuneko-puntu igo da, eta Gabonen aurreko mailetan kokatu da (kontratu guztien % 27,1; % 23,8 urtarrean eta % 20 abenduan).
- Partzialtasuna aurreko hilabeteetako antzekoa mailatan aurkitzen da; otsailean sinatutako kontratuen % 42,4 lanaldi partzialekoak baitira. Emakume gehienek sinatzen dituzte (kontratu horien % 67).
- Kontratuen % 51 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
- Kontratuen % 29 45 urtetik gorako pertsonen sinatzen dituzte. Horien guztien % 61 emakumeak dira.
- Otsailean kontratatutako pertsonen % 20 atzeritarrak ziren (% 18,7 azaroan, % 22,2 abenduan eta % 20 urtarrean). Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen % 56 emakumeak ziren.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Hiriko kontratu guztien % 15,8 sinatu ditu** (% 17,4 urtarrilean; % 24 2023ko maiatzean).
- Hiriko kontratu mugagabe guztien % 26,2 sinatu ditu** (urtarrilean % 24,6).
- Ostalaritza da kontratu mugagabe gehien sinatu dituen 2. sektorea**, 484 kontratu mugagabe (448 urtarrilean).
- Lau hilabeteko beherakadaren ondoren, kontratazio mugagabeak nabarmen egin du gora sektorean**, eta sektorean, joan den urtearen erdialdetik, ikus genezakeen aldi baterako kontrataziorako joera eten da. **Otsailean, ostalaritzan sinatutako kontratuen % 45 mugagabeak izan dira** (% 34 urtarrilean).
- Urtarrilaren aldean, kontratazioaren partzialtasuna 7 ehuneko-puntu igo da**. Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 59 lanaldi partzialekoak dira.

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 10,4 sinatu ditu** (% 12,2 abenduan eta 11.3 urtarrilean).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 13,2k** (% 15,8 azaroan, % 14,4 abenduan eta % 13,4 urtarrilean), **eta lanaldi partzialeko kontratuen % 13,3k** (% 15,8 urtarrilean) **sinatu ditu**.
- Merkataritzan otsailean sinatutako kontratuen % 34 mugagabeak dira** (% 28 urtarrilean). Ostalaritzan bezala, aurreko urtearen erdialdetik sektoreak nabarmen zen aldi baterako kontrataziorako joera eten da.
- Lanaldi partzialeko kontratazioak ehuneko 6 puntu egin du behera**. Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 54 lanaldi partzialekoak dira (% 60 urtarrilean).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	2 (%0,1)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	63 (%3,4)	%95,2	%4,8
Industria	38 (%2,1)	%60,5	%39,5
ostalaritza	484 (%26,2)	%52,7	%47,3
Merkataritza	244 (%13,2)	%33,6	%66,4
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	117 (%6,3)	%40,2	%59,8
Osasuna eta gizarte zerb.	134 (%7,3)	%15,7	%84,3
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	264 (%14,3)	%42,4	%57,6
	498 (%27,0)	%39,0	%61,0

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	1 (%0,0)	%0,0	%100,0
Eraikuntza	11 (%0,4)	%81,8	%18,2
Industria	45 (%1,6)	%64,4	%35,6
ostalaritza	636 (%22,0)	%38,4	%61,6
Merkataritza	385 (%13,3)	%23,1	%76,9
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	360 (%12,5)	%25,6	%74,4
Osasuna eta gizarte zerb.	507 (%17,5)	%17,0	%83,0
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	246 (%8,5)	%44,3	%55,7
	700 (%24,2)	%40,9	%59,1

Egia da behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen duela hirian (10 kontratutik 2,7 baino ez dira mugagabeak), baina sinatutako kontratu mugagabeen ehuneko pixka bat hazi da otsailean zehar.

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: industrian eta osasun – gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 86 eta % 88 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, hezkuntzan eta osasun sektorean. Azken horretan, lanaldi partzialeko kontratuen % 83 emakumei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua da).

Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak eskainitako kontratazioan (% 13), industrian (% 26) eta eraikuntzan (% 6). Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 73 eta osasun-sektoreko kontratuen % 79 emakumeen kolektiboarentzat dira.

¹**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduera intentsiboetako eta abarretako jarduerak).


SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (398 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (28 kontr.), higiezin-jarduerak (8 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (965 kontr.), administrazioa publikoa (70 kontr.), beste zerbitzu batzuk (102 kontr.) eta etxeetako jarduerak (105 kontr.).

DSBEaren hartzaileak (urtarrila)

Gaur egun, ez daukagu datu eguneraturik DSBEa jasotzen dutenen kopuruari eta profilari buruz.

Eskuragarri dauden azken datuak urtarrilari buruzkoak dira, hilabete horretan **3.609 pertsonak jaso baitzuten DSBEa hirian** (57 hartzaile gehiago abenduan baino).

Otsaileko daturik ez dagoenez, orrialde honetan urtarrileko datuak agertzen dira, Donostian DSBEa jasotzen dutenen kopuruari eta ezaugarriei buruzko balio orientagarriak izateko.




Nabarmendu daiteke:

- Urtarrilean **DSBEa jaso zutenen % 59,3 emakumeak dira.**
- 55 urtetik gorakoak DSBE jasotzen zutenen % 47,9 ziren** urtarrilean.
- Urtarrilean **DSBEa jasotzen zutenen % 19,1ek lanaren osagarri gisa** jaso zuten.
- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenen % 27,2k goi-mailako ikasketak zituen** urtarrilean Donostian (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAEREkin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

(Urtarrileko datuak)

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,3	%0,5	%0,3
20 - 24 urte	%2,0	%2,3	%2,4
25 - 29 urte	%4,7	%5,4	%5,4
30 - 34 urte	%6,8	%8,0	%7,6
35 - 39 urte	%8,8	%10,0	%9,8
40 - 44 urte	%8,8	%11,6	%11,2
45 - 49 urte	%10,4	%11,9	%11,1
50 - 54 urte	%10,3	%11,3	%10,8
55 urtetik gora	%47,9	%39,0	%41,5
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%54,4	%62,3	%59,9
Batzilergoa	%9,2	%6,7	%6,9
Lanbide Heziketa	%20,4	%17,0	%19,4
Unibertsitatea	%6,8	%4,4	%4,5
Informaziorik gabe	%9,2	%9,6	%9,3
Lanaren osagarritasuna	%19,1	%17,0	%18,5
Oinarrizko DSBE modalitatea	%80,9	%83,0	%81,4
Gizonak	%43,0	%42,8	%43,0
Emakumeak	%59,3	%57,2	%57,0

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera (urtarrila)



(Urtarrileko datuak)

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Aiete	14.066	138	%1,0
Altza	19.517	595	%3,0
Amara Berri	29.377	428	%1,5
Antigua	13.754	131	%1,0
Añorga	2.448	26	%1,1
Ategorrieta-Ulía	3.874	82	%2,1
Centro	21.352	354	%1,7
Egia	14.208	335	%2,4
Gros	17.563	272	%1,5
Ibaeta	9.721	125	%1,3
Igeldo	1.040	7	%0,7
Intxaurrondo	15.010	547	%3,6
Loiola	6.073	179	%2,9
Martutene	2.592	86	%3,3
Miracruz-Bidebieta	8.565	277	%3,2
Miramón-Zorroaga	2.302	23	%1,0
Zubieta	292	2	%0,7